Nafarkaria

Egunkaria
Ostirala, 1996ko ekainaren 21a

Uda, ongi etorri

■ Udako solstizioarekin batera, udako hilabeteak hasi dira gaur. Oporrak hurbil dira. Ikastetxeak hutsik eta lepo eginda daude jada hondartzak, igerilekuak eta jolastokiak. Haurrak bezala, irrika bizian oporren zain dira helduak ere. Ez da, baina, arrosa kolorekoa guztia udan. Zelai eta soroetan uzta egiteko garaia da, lan garaia, beraz, nekazari eta baserritarrentzat. Eskerrak, behintzat, Nafarroako herrietan bestak hastear direla. Sanjoanak lehendabizikoak, San Joan gau magikoa tarte. Eguraldiari dagokionez, ekaina eguzkitsua, uztaila trumoitsua eta abuztua lanbrotsua iragarri dute tenporek. Udako hilabeteei ongi etorria eman nahi izan die aste honetako NAFARKARIA-k. ■

Xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ

Mugarik ez

Ekaina jadanik erdialdera ailegatu da, eguzkia indartsu dabil aurten eta jendea izpi bat ikusi orduko hondartzara (ni ez noski, liburu artetik ezin baitut sudurra atera). Aste honetan Zahartzaroaren Psikologia izeneko ikasgaiaren azterketa izan dut eta lehendik banekizkien gauzen inguruan hausnarketa bide bat ideki dit sexualitatearen inguruan.

Zergatik uste dugu adineko pertsonengan ez dagoela sexualitatearentzat tokirik? Edo okerrago, zergatik aztoratzen eta lotsatzen gaitu hainbertze, adineko pertsonek sexu harremanak izan ditzaketela pentsatzeak? Badago arrazoi bat baino gehiago:

Funtsezkoena, nire iritziz, sexualitatea eta ugalketa parekatzea da. Oinarria erlijioan duen ideia honek, barrena nahasten dit aditzen dudan aldiro. Oraindik pentsakera atzerakoi eta faltsu hori buruan duenak, egia erran, pena ematen dit, ez baitu ezagutzen sexualitateak eskaini diezaiokeen bertze hainbat plazer, eta bertze diot, ez dudalako ugalketa sexualitatetik kanpo uzten. Ideia hau era berean, hagitz zabaldurik dagoen bertze oker batek indartzen du: sexu harremanen zentrua koitoa dela; sexu harremana aipatzean nork pentsatzen du ba, koitorik gabeko harreman batez ari gaitezkeela solasean? Hagitz guttik.

Bigarren arrazoia erakargarritasun fisikoarena izango litatzeke. Dirudienez gure gizartean sexu harremanak izateko bertze pertsonak erakarri egin behar zaitu (hau ere eztabaidagarria den arren, bertze egun batean solastu beharko horretaz); okerrena da erakargarritasuna aldagai neurgarri eta objetibo bezala hautematen dela. Pertsona erakargarria gaztea, argala, altua, osasuntsua,... izango da, *gazte gorputz danonea* azken finean. Baina noiz ikasiko dugu pertsona bakoitza mundu bat dela eta horren arabera daudela nahi, gustu eta desio guztiak? Gainera erakargarritasuna, berez abstraktua izanik, era berean gustuetan hain desberdinak garen gizakiok, nola objetibiza dezakegu horrela?

Azkenik, arrazoien artean bertze bat aipatu nahi nuke, gaitasun kontzeptua alegia. Zaharrek sexu harremanak izateko gaitasunik ez dutela uste dutenak aunitz dira oraindik. Ba hel bekie informazio hau (Master eta Johnsonen ikerketen arabera):

—Emakume adinduak gai dira menopausia aintzinetik zuten sexu praktika maila mantentzeko, baita orgasmora ailegatzeko ere. Emakumeen sexualitateak ez du adin mugarik.

—Gizonezkoen sexualitatea, baldintza fisiko eta emotibo egokietan, maiz mantentzen da 80 urtetik goiti.

—Zahartzaroko erantzun sexualaren murrizketa ekiditeko, baita goian aipatutako gizon eta emakumeen sexualitateen sexu harreman gustagarriena edukitzeko biderik onena, sexu jarduera erregularra izatea da, sexualki aktibo izatea. Badakizue beraz! ✗

GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Burlata: Barañaingo txistulariek kontzertua eskainiko dute igandean, hilak 23, 17.00etan Burlatako Andra Mari zentroan.

Iruñea: Koma, Baldin Bada eta Berri Txarrak taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, hilak 22, Iruñeko Donibane auzoko Baguada parkean, 21.30etatik aurrera. Ikuskaria musutruk gozatu ahal izanen da.

ANTZERKIA

Zangoza: Kollins Clown taldeak *Ongi etorri Mendebaldera* obra taularatuko du bihar, hilak 22, euskaraz, 18.00etan eta Kultur Etxeko lorategian.

ERAKUSKETAK

Iruñea: Margoerti tailerreko ikasleen lanak Jesus Mari Etxean (San Agustin kalea, 21) izanen dira ikusgai uztailaren bira arte.

Elizondo: Juan Karlos Pikabearen margoak herriko Arizkunenea Kultur Etxean ikusgai izanen dira gaurtik aurrera eta uztailaren sira arte. Erakusketa lan egunetan 19.00etatik 21.00etara izanen da zabalik, eta jai egunetan itxita izanen da.

Zangoza: Herriko etxekoandreen lanak biltzen dituen erakusketa ekainaren 25etik uztailaren zazpira arte.

IKASTAROAK

Zizur Nagusia: Eskulangintza tailerra izanen da herriko Kultur Etxean hilaren 28ra arte.

Barañain: Jazz ikastaroa izanen da hilaren 24tik 28ra Luis Morondo musika eskolan. J. Edelman, T. Quintana, K. Robb eta P. Goialde ariko dira irakasle lanetan.

LEHIAKETAK

Iruñea: Sanfermin Txiki jaiak iragarriko duen kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du Navarreria Auzoko Jai Batzordeak. Orijinalek Din A3 tamaina izan beharko dute, eta egileek horiek irailaren lehena baino lehen aurkeztu beharko dituzte Iruñeko Alde Zaharreko Auzo Elkartean (Aldapa kalea, 5). Irabazleak 35.000 pezeta eskuratuko ditu.

Antsoain: Herriko bestak iragarriko dituen kartela hautatzeko lehiaketa deitu du jai batzordeak. Kartelek gehienez 45x60 zentimetroko tamaina izan beharko du, eta gutxienez 25x35ekoa. Orijinalak abuztuaren 14a baino lehen aurkeztu beharko dira Antsoaingo udaletxeko bulegoan. Irabazleak 60.000 pezeta eskuratuko ditu.

IKASTAROAK

Barañain: Jazz ikastaroa izanen da hilaren 24tik 28ra herriko Luis Morondo musika eskolaren eskutik. Informazio gehiago eskatzeko deitu 18-53-43 telefonora.

nafar kronika

Alberto Barandiaran

Ondorioak

Javier Otano lehendakariaren dimisioak ondorio barregarri batzuk izan ditu, latzak bestetzuk. Barregarriak izan dira politikarien adierazpenak, nork bere egoera salbatu nahian, denek ohikoak dituzten diskurtsoak erabiliz. Barregarriak dira engainatuta sentitu direnen malkoak, urteak izan dituztelako norekin zeuden ohartzeko, eta praktika batzuen aztarnen zipriztinek haiek ere zikindu dituztelako. Barregarri gelditu dira Nafarroa ahoskatzerakoan harrotu egiten ziren horiek, begietatik txiribitak jaurtitzen zituztenak lurraldearen etorkizunaz eta garapenaz mintzatzen zirenean. Barregarri, orain haiek erantzun beharko dutelako, ohorea, hitza eta Nafarroa hitzak jan egin beharko dituztelako, inoiz ez dituztelako benetan aintzat hartu.

Zorioneko aferak, ordea, izan ditu ondorio garrantzitsuagoak, esan bezala. Esate baterako, ETBk egin behar zuen egoitza berriaren inaugurazioa bertan behera utzi behar izan dute, Mintzoa argitaletxeak asteartean egin zuen Nafarroako Historia liburuaren aurkezpena kolorerik gabekoa izan zen, jendea aztoratuta zegoen-eta hagitz lehendakariaren dimisioarekin, eta Rafael Moneo —beste tuterar bat—, ez da azkenean Iruñera etorri, aurreikusita zegoen bezala, giroa baretu arte ez du-eta nahi izan Nafarroan egon.

Ezin esan ekaitz politikoak ETB, liburua edo arkitektoaren proiektua izorratu dituenik, baina batzuei utzi die zapore mingotsa: benetan merezi duten gauzek ez dute zer eginik gezurti lotsagabe handimandi hauen aurrean.

asteko pertsonaiak

Javier Otano
Presidente ohia

■ Bigarrenaren atzetik hirugarrena heltzen da ezinbestean. Gabriel Urralburu eta Antonio Aragon izan ziren estreinako biak, eta Javier Otano izan da hirugarrena. Joan den asteartean Zapateria kaleko egunkari atzerakoiak Otanok Suitzan bere izenean kontu korrontea duela argitaratu zuen. Segituan, ordura arte Nafarroako presidente izandakoak utz zezakeen guztia utzi zuen, hau da, presidente, parlamentario eta PSNko idazkari nagusi izateari utzi zion. Esaera zaharrak ez du argitzen hirugarrenaren atzetik halabeharrez laugarrena datorrenentz. Dena dela, Otanoren aferak baietz pentsatzera bultzatzen du, PSN alderdiaren legez kanpoko finantzaketaren hipotesia nabarmen indartu du eta.

Sagrario Aleman
Euskaltzalea

Sagrario Alemanek Larreko saria jaso zuen joan den larunbat gauean, Euskalerria Irratia elkartearen eskutik. Etxalekukoak gazte-gaztetik hasi eta gaur egunera arte Euskal Herrian Euskaraz erakundean, Arturo Kanpion euskaltegian, Egunkaria Sortzen taldean eta beste hainbat tokitan euskararen alde egindako lan mardula saritu nahi izan zuen elkarteak modu horretan. Burlatako Hilarion Eslaba kiroldegian herri afarian bildutako 450 lagunen aitzinean, Alemanek eskuz landutako makila jaso zuen oroigarri gisa. Saria ezezik, Mikel Bujanda Euskalerria irratiko zuzendariarekin dantzatu zuen balsa ere gogoratuko du makila ikusten duen aldi oro, benetan ahanztezina izan baitzen hori.

ahaztu gabe!

DONIBANEKO JAIAK

Iruñea: Gainean ditugu jada herrietako jaiak. Asteburu honetan, Sanjoanetako suak bero-bero jarriko du herri askotatako giroa. Ez ahaztu, dena dela, herriek ezezik, Iruñeko auzoek ere ongi pasatzeko aukera eskaintzen dutela. Esate baterako, gaurtik eta igandera arte Donibane auzoak haren jaiak ospatuko ditu. Igandean, hilaren 23an, San Joan gauean alegia, ez da, jakina, surik faltako. Dena dela, sua ezezik beste gauza asko eskainiko dituzte Donibaneko jaiek: herri barrakak, haurrentzako barrakak, haurrentzako jokoak, zezen suzkoa, gaiteroak, dantzariak, dantzaldiak, dianak eta abar. Bi izanen dira ekitaldi horien guztien artean izarrik distiratsuenak: larunbateko artisautza erakusketa eta egun bereko gauean eginen den rock kontzertua (ikusi agenda). Auzoko Baguada parkea izanen da jaiaren ardatz nagusia, beraz, jaiak gozatu nahi dituenak badaki nora joan behar duen.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Karrape Irratia FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gainetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Sakana

Igerilekuetan ere euskaraz

Euskararen erabilpena bultzatzeko kanpaina antolatu du Sakanako Mankomunitateak

Euskararen erabilpena bultzatzeko asmoz, *Igerilekuetan ere euskaraz* lelopeko kanpaina antolatu dute Sakanako Mankomunitateko Euskara eta Kirol Zerbitzuek, Sakanako udal eta euskara taldeen laguntzaz. Kanpaina bukatuta, irailaren 15a baino lehen lortutako emaitzen balorazioa eginen dute.

Erredakzioa / **Iruñea**

SAKANAKO igerilekuetan euskara erabiltzeko kanpaina aurkeztu zuten joan den asteazkenean Iruñean. Iaz bezala, Sakanako Mankomunitateko Euskara eta Kirol Zerbitzuek antolatu dute, Ziordia, Olazti, Altsasu, Urdiain, Etxarri-Aranatz, Arbizu, Lakuntza, Arakil-Uharte eta Irurtzungo udalekin batera eta *Igerilekuetan ere euskaraz* lelopean. Sakanako Euskararen Aldeko Taldeek ere hartzen dute parte, hala nola, Altsasuko Kima, Etxarri-Aranazko Zirikitzen eta Irurtzungo Aizpea.

kanpaina honen helburua, izenak berak argi azaltzen duenez, igerilekuetan euskararen erabilpena bultzatzea da. Igerilekuetan eskaintzen diren zenbait zerbitzu euskaraz bermatzea ere badu xede: igeriketa ikastaroak, atezaintza, taberna eta abar. Horretaz gain, megafonia erabiltzerakoan mezuak euskaraz edo ele bietan igorriko dira, euskarari lehentasuna emanez. Kartel eta arauak ere euskaraz edo bietara egonen dira, baita iragarki-oholean jarriko diren mezu guztiak ere. Igerilekuetako sarrerak, halaber, euskaraz edo bietara eginen dituzte. Igerilekuetan jartzen den musikari dagokionez ere, euskarak lehentasuna izanen du. Horretarako, Sakanako Mankomunitateak berak banatuko ditu beharrezko diren bitarteko guztiak.

Beste hainbat jardueratan ere euskararen erabilpena bultzatuko du aurkeztu berri duten kanpainak. Uztailean eta abuztuan umeentzako eginen diren kultur eta kirol ekitaldiak, adibidez, euskaraz izanen dira Ziordia, Olazti, Urdiain, Etxarri-Aranatz, Arbizu eta Lakuntzan. Gainontzeko herrietan, Altsasu, Arakil-Uharte eta Irurtzunen, gutxienez ekitaldien erdiak euskaraz izanen dira.

Kanpainaren bitartekoei dagokienez, igerileku guztietan Sakanako Mankomunitateak kanpainaren leloa agertuko duten kartelak jarriko ditu, *Igerilekuetan ere euskaraz*, hain zuzen ere. Aldi berean, euskararen erabilpena bultzatzera gonbidatuko duten zintak banatuko dira igerilekuetan jar ditzaten. Kanpaina abian jarriko duen herri bakoitzean izanen da horren jarraipenaz arduratuko den pertsona edo talde bat. Kanpaina bukatuta, Sakanako Mankomunitatearen Euskara eta Kirol Zerbitzuak, Udalekin eta parte hartuko duten beste erakunderekin balorazioa eginen du irailaren 15a baino lehen. Balorazioa, Kirol Batzordeko Zuzendaritza Batzordean, Euskara Batzordean, udal guztietan eta euskara taldeetan aurkeztuko dute. ✗



Igerilekuetan ere euskara erabiltzea du helburu Sakanako Mankomunitateak.

ARTXIBOKOA

Iruñea

Egile Berrientzako XI. Literatur Lehiaketan parte hartzeko deialdia zabaldu du dagoeneko Udalak

■ *Olerki, narrazio labur, bertso-paper eta komiki sailek osatuko dute aurten literatur lehiaketa*

Erredakzioa / **Iruñea**

IRUÑEKO UDALAK Egile Berrientzako XI. Literatur Lehiaketan parte hartzeko deialdia zabaldu berri du. 1988. urtean sortu zen lehiaketa hau, oraindik lanik argitaratu gabe diren egileen lanak saritu eta nolabait bultzatzeko asmoz. Orduz geroztik, urtero egin dira narraziokoak —91. urtean izan ezik—, olerkiak saritzeko deialdiak 1989. urtean egin zuen huts, eta bertso-paperena 1990. urtean jarri zuten abian. Aurtengo ekitaldia, berriz, lau sailetan bantu dute: olerkia, narrazio laburra, bertso-paperak eta komikia.

Parte hartu ahal izateko, egileek Nafarroan bizi behar dute. Gaia librea izanen da baina hainbat baldintza bete beharko du, hala nola euskaraz idatzita egotea eta jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izatea. Egile berberak, bestalde, sail bakoitzean lan bakarra aurkeztu ahal izanen du.

Olerkigintzari dagokionez, gutxienez 15 folioko lanak izan behar dute eta gehienez 25ekoak. Narrazio laburrean, 15 eta 40 bitarteko orrialde kopurua idatzi beharko dute partehartzaileek. Bertso-paperean, 25 bertso gutxienez eta 40 gehienez egin beharko dituzte. Komiki sailean, azkenik, koloreetan aurkeztuz gero 5 eta 7 orrialde bitarteko kopurua egin behar da, eta zuri-beltzean, 5 eta 12 bitarteko kopurua. Lanak Iruñeko udalaren Erregistro Ofizialean aurkeztu behar dira, urriaren 31a baino lehen.

Sail bakoitzean hiru sari banatuko ditu Udalak, 180.000, 100.000 eta 50.000 pezetakoak. Sari hauetaz gain epaimahaiak 25.000 pezetako lau sari akzesit banatzeko ahalmena izanen du. Epaimahaiari dagokionez, Iruñeko udalak izendatuko du: Alkate jauna edo berak izendatutako zinegotzia epaimahaiburu dela, lehiaketaren gaietan adituak diren lau lagun: Nafar Ateneoa, Euskaltzaindia eta Nafarroako Bertsolarien Lagunak Elkartea erakundeek proposatutako bana, eta laugarrena komikietan aditua, Udalak berak izendatua.

Aipatzekoa da, bestalde, azken edizioetako lanak berriki argitara eman dituela Iruñeko Udalak berak, lau liburukitan: narrazio laburrentzako bi liburuki eta olerki eta bertso-paperentzako bana. Lan hauek nafar literaturak izan duen susperraldiaren lekukotzat hartu daitezke, eta sariak eta akzesitak lortu dituztenen artean izen esagun samarrak ageri dira: olerkian Juanjo Olasagarre, Maria Markotegi eta Joxemiel Bidador, adibidez; narrazio laburrean Manolo Fontalba, Felipe Rius eta Kike Diez de Ultzurrun, besteak beste; eta bertso-paperetan, Pablo Jose Aristorena, Manu Gomez, Bittor Elizagoien eta Jose Manuel Leitza, adibidez. ✗

Ollo

Ollarango Jaieguna bihar ospatuko dute Ollon

■ *Ekitaldi ugari izanen da egun osoan zehar*

Erredakzioa / **Iruñea**

OLLARANGO JAIEGUNA ospatuko dute bihar Ollon. Eguneko ekitaldiak goizean goiz hasiko dira, bederatzietan hain zuzen, aurora eta txokolate jatearekin. Ondoren, hamar eta erdietan, agurra eginen diote Mikel deunari. Ordu erdi geroago meza nagusia izanen da, Virgen del Rio abesbatzaren partehartzearekin.

Kirolak ere izanen du tartea Ollarango Jaiegunean. Ordu batean, eskuz ariko dira pilotan haurrak. Ondoren, ordu bietan, herri bazkaria eginen dute. Arratsaldeko bost eta erdietan itzuliko da kirola Ollarango Jaiegunera, herri kirolak zehazki.

Arratsaldeko zazpietan, berriz, antzerkiari eginen diote txokoa Ollarango Jaiegunearen antolatzaileek. Gau partean, azkenik, hamar eta erdiak aldera, herri afaria eginen da eta ondoren dantzaldia izanen da. ✗

Tafalla

Antzerki Gauak zikloa antolatu du kultur Patronatuak

■ *Hiru antzerki taldek hartuko du parte*

Erredakzioa / **Iruñea**

LIZARRAKO UDALEKO Kultur Patronatuak Antzerki Gauak izeneko zikloa antolatu du hil honetako datozen asteetarako. Hilaren 26 eta 28a bitartean, hiru taldek hartuko du parte aipatu zikloan. Hasiera emateko, Anonima taldeak *chica busca piso* izeneko obra taularatuko du datorren asteazkenean. Biharamunean, berriz, Marmol X Teatro taldeak eskainiko du bere ikuskizuna, *Lección de italiano* izenburuko lana, hain zuzen ere. Ekainaren 28an, azkenik, Melody Sisters konpainiak *Con lo puesto* antzeztuko du Tafallan. Antzerki Gauak zikloaren hiru emanaldiak Kultur Etxean izanen dira, gaueko 10etan. ✗

Tuterako ARGIA IKASTOLAn musika espezialitatea duen irakasle bat behar da 96/97 ikasturterako. Interesatuek bidali kurrikuluma 288 postakutxara ekainaren 25a baino lehen.
ARGIA IKASTOLA S. COOP. L. - Tudela hirib. z/g - 31512 Fontellas
Tel./Faxa: 82 51 37

Uda,
jai eta eguzki hilabeteak

Eguzki hilabeteak abian

Ekainaren 21eko solstizioarekin batera, gaur hasi da uda, opor eta besta garaia Sanjoanetatik aurrera

Ekainaren 21eko solstizioarekin batera, gaur hasi da uda. Eguzki hilabeteak zain ditugu berriro ere. San Joan gaua, oporrak eta bestak dira udako hilabete hauetan protagonista. Baina bada besterik ere. Udak guregan duen eraginari buruz mintzatu gara Alfredo Martinez psikiatrarekin eta udako uztari buruz Jose Ramon Izkorekin. Andoni Aizpuruk, berriz, datozen hilabeteetako eguraldiaren berri eman digu, tenporen arabera.

Edurne Elizondo / **Iruñea**

GAUR hasi da uda, ekainaren 21eko solstizioarekin batera, nahiz eta azken asteetan jasan behar izan dugun bero izugarriak uda askoz lehenago iritsi zela pentsarazi digun. Udak, baina, beroa baino askoz gehiago ekarriko digu. Nekazari eta baserritarrek soroetan botako dute izerdia uzta eta belarra biltzen. Euskal Herriko herri guztietako jaiak iragarriko dituzten altxaferoek eztanda eginen dute zeruan datozen hilabeteetan. Neska-mutilek ikastetxeetako gelak hutsik utziko dituzte eta igerileku, hondartza eta jolastokiak beteko. Langileek ere, hainbat hilabetetan irrika biziz espero izan dituzten oporrez gozatzeko aukera izanen dute azkenik.

Ekainaren bukaerarekin batera uda badator, udako lehen egunetan San Joan gaua ospatzen da Nafarroako eta Euskal Herriko herri askotan. San Joan bezperan, beraz, herri gutxi izanen da surik piztuko ez duenik. Udako hirugarren gaua da. Bere gorako bidean latituderik gorenera ailegatzen da eguzkia, Kantzerreko tropikora. Egunik luzeenetan eta gaurik motzenetan ospatzen dira Sanjoanak, udako lehen jaiak.

San Joan gaua, halaber, errito askoren iturburu izan da mendeetan zehar. San Joan gaueko suak, adibidez, beti izan du garbitasun zentzua. Mendietan goian izandako egur puskek eguzkiaren indar eta bertuteak bereganatzen dituzte eta solstizioa ailegatuta, airea, zuhaitzak, lurra, etxeak eta biztanleak garbitzeko piztu egiten dira. Garbitzekoa ezezik, sendatzeko ahalmena ere badu San Joan gaueko suak herrietako sinesmenaren arabera, azaletiko gaixotasunak batez ere.

Hori dela eta, hain zuzen, Ultzama aldean, *San Joan bezpera, sarna fuera* oihu egiten zuten suaren gainetik salto egitean. Beran, berriz, *Onak barrenat, gaixtoak kanporat*. Eta Markelainen, *Chinchurrera: sarna fuera, Naparroko garail gucia nere granerora*, abesten zuten suaren aurrean. Berdin Oitzen: *Sarna fuera: ona barrena eta gaixtoa kanpora*, zioten suaren gainean. Larraun, Baztan eta beste hainbat bailaretan antzekoak esaten zituzten.

Belarra egin eta uzta biltzeko garaia da Nafarroako baserri eta zelaietan.
ARTXIBOKOA

Egunak luzeagoak, gauak motzagoak • Errito guztien gainetik, udako hilabeteen etorrerarekin dago lotuta San Joan gaua. Eta udak, udaberriak bezala, eragin berezia du guregan. Halaxe azaldu digu Alfredo Martinez psikiatrak. Udak guregan duen eragina, dena den, gehiago da psiko-soziala. Udaberri eta udazkenarena, berriz, biologikoa, adituen esanetan. «Udak, batez ere, erritmo eta ordutegien aldaketa, errutinaren haustea ekartzen du», azpimarratzen du Alfredo Martinezek, «eta hori positiboa da». Argi ordu gehiago ere badago udan, luzeagoak dira egunak eta hori onuragarria omen da guretzat. Eguna luzatzen denez, gainera, besteekin harremanetan egoteko denbora ere luzatu egiten da.

Familien baitan ere aldaketa ugari gertatzen da uda garaian. «Dinamika erabat aldatzen da». Izan ere, alde batetik, haurrek ikasturtea bukatu dute eta etxean egon behar dute denbora gehiago. «Gurasoek, beraz, denbora gehiago eman behar dute seme-alabekin». Bestetik, gaztetxoek bezala, helduek, langileek, oporrak dituzte. «Oporrak hartzen dituenean, normalean, nekatuta dago jendea. Lanik gabeko egun horiek, beraz, atseden hartzeko dira. Atsedenaldia, baina, psikikoa izaten da, ez ordea fisikoa. Egun, gainera, modan jarri dira opor erabat aktiboak; beraz, atseden hartu ordez, guztiz aurkakoa gertatzen da».

Oporrak ezezik, beroa ere ekartzen du udak, eta beroa da, hain zuzen ere, udako hilabeteetan hainbat eta hainbatek jasaten duen nekearen arrazoia. «Apaldu egiten gaitu beroak». Oporren amaierak areagotu egiten du neke hori. «Irailean oporrak bukatzen dira eta lanera itzuli behar du jendeak. Orduan oporren amaieraren sindromea izaten dute langileek. Udazkenean, hain zuzen, asko areagotzen dira depresioak», azaltzen du Alfredo Martinez psikiatrak.

Alfredo Martinez: «Uda ailegatzen denean, erritmoa eta ordutegia aldatu egiten dira, errutina apurtzen da eta familiaren dinamika ezberdina da»

Andoni Aizpuru: «Tenporen arabera, ekaina eguzkitsua, uztaila trumoitsua eta abuztua lanbrotsua izanen dira»

Sanjoanekin batera iritsi dira Nafarroara lehenengo bestak.
ARTXIBOKOA

Uzta biltzeko garaia • Bada, hala ere, uda ailegatuta oporrak hartu ordez lan gehiago egin behar duenik ere, nekazari eta baserritarrek, alegia. Tere Bildarraz Leitzako Esalakortea baserriko andreak badaki, ongi jakin ere, lana zer den. Egun hauetan, hain zuzen, zelaietako belarra dute lan iturri. Belarra moztu, zabaldu eta lehortzen utzi behar dute lehendabizi. Ondoren, Sanferminak iritsi orduko, gutxi gora-behera, belarra bildu eta zilora eramanen du Tere Bildarrazek etxekoen laguntzaz. «Zilora belarra ongi lehortu denean eraman behar dugu. Gainean plastikoa jarri eta urez beteko dugu. Abendu aldera, ura kendu eta belarra prest izanen da, animalientzako».

Iruñerriko zelaiak ere uzta egiteko prest dira. Ekaina, hain zuzen, garagarra biltzeko garaia da; uztaila, berriz, garia biltzekoa. Hori dela eta, Nafarroako hainbat herritan, *garagarrila* edo *garagarzaroa* deitzen diote ekainari eta *garila* uztailari. Gerendiainen duen 40 hektareako lur

Uda, jai eta eguzki hilabeteak

puskan, hain zuzen, erdibana du garagarra eta garia Jose Ramon Izko 58 urteko nekazariak. Larunbatean hasiko dira bere garagarra biltzen, «eguraldia aldatu eta iparra sartzen ez bazaigu behintzat».

Aurtengo uzta, baina, ez da hasieran uste bezain ona izanen. «Beste urteetan baino hobea izanen zela uste genuen baina hil honetan izan dugun tenperatura altuak murriztu egin du uztaren irina», azaldu digu Jose Ramon Izkok. Nekazariaren patua. «Zerura begira bizi gara beti».

Bizitzaren alor askotan bezala, baina, nekazarien lan egiteko moduan ere gertatu dira aurrerakuntzak. «Gogoan dut oraindik lurra idiekin lantzen genuen garaia. Etxeko guziek joan behar genuen lanera». Orain, berriz, uztamakinari esker, askoz lehenago biltzen dute garagarra eta garia. «Hiru langile nahiko dira, bat uztamakina eramateko eta beste bi bildutakoa zilora eramateko». Lurrak, hala ere, bere araudia ezartzen du oraindik ere. «Garagarra, adibidez, ezin dugu bildu lurrak % 14 baino hezetasun handiagoa badu». Eguraldiaren eta lurraren baimenarekin, beraz, asteburu honetan hasiko dira uzta biltzen Jose Ramon Izkoren zelaian.

Ekaina eguzkitsua, uztaila trumoitsua eta abuztua lanbrotsua • Eguraldiaren gora-beherak ongi ezagutzen dituena dugu Andoni Aizpuru, Euskal Telebistako eguraldi-gizona eta *Bertatik Bertara* saioko aurkezlea. Berarengana jo dugu datozen hilabeteetako aurreikuspena ezagutzeko asmoz. Telebistako kameren aurrean erakusten dituen mapek, ordea, ezer gutxi argitzen dute hain epe luzeaz mintzatzen ari garenean, Andoni Aizpuruk aitortu digunez. «Tenporei so egitea da bide bakarra». Aizpuruk, baina, argi eta garbi utzi nahi du tenporena sinesmen kontua baino ez dela, hau da, «batzuek sinetsi egiten dute eta beste batzuek ez». Datozen hilabeteetako eguraldiaren gora-beherak modu orokorren jakiteko behintzat, baliagarriak izan daitezke bere ustez, «joera zein izanen den jakiteko».

Tenporak, ilargiaren arabera eguraldiaren joera zein den jakiteko elizak ezarritako egunak dira. Azkenekoa, maiatzaren bukaeran izan zen. Horren bidez, ekaina, uztaila eta abuztuko eguraldiaren joera iragarri daiteke.

Ekainari dagokionez, erdia baino gehiago igaro dela kontuan hartuta, tenporak arrazoia zuela erran daiteke, eguraldi eguzkitsua iragarri baitzuen, Andoni Aizpuruk aipatzen duenez: «Bero handia, hego haize sargoririk ez eta ekaitza arrisku gutxi». Uztailari dagokionez: «Aldakorra izanen da eguraldia, ez dugu ekainekoak bezalako egun onik izanen, haize aldaketak izanen dira eta ekaitzak izanen ditugu, hilabete trumoitsua izanen da». Abuztua, azkenik, hilabete lanbrotsua izanen da, «tristea. Ipar haizea sartuko da eta freskoagoak izanen dira egunak. Langarra izanen dugu, euri txikia». ✗

Sanjoanak, hemen dira besta magikoak

◆ Olague ◆

OLAGUEK suaren inguruan ospatzen ditu bere jaiak, San Joan baitute patroi bertako herritarrek. Eta patroiaren eguna, noski, ekainaren 24an ospatzen dute: meza nagusia arratsaldeko zortzietan —azken egunetako beroak jarraitzen badu, ordurik onena—, eta ondoren, patroiari ohore egin eta gero, txistor jate herrikoia prestatu dute.

Olagueko deuna Joan bada, bezperan gaueko hamarretan egiten duten San Joan sutea da —besta hauek ospatzen dituzten herri guztietan bezala— ekitaldirik ikusgarri eta preziatuena. Hilaren 23ko gaueko hamarretan egiten dute eta oraindik piztuta dagoen suaren inguruan, ondoren, irrintzi txapelketa eta afaria eginen dituzte, San Joan gaua behar den bezala ospatzeko.

Olagueko jaiak, baina, San Joan gaua baino lehenago hasiko dira, gaur bertan, hain zuzen. Arratsaldeko zazpi eta erdietan lehertuko da zeruan jaiak iragarriko dituen altxaferoa, eta gaueko hamar eta erdietan, herri afari izanen da herriko pilotalekuan. Bakoitzak etxean duena eraman eta denen artean janen dute San Joan bestetako lehen egun honetan. Gaurko gaua, berriz, Elurte taldeak alaituko du bere dantza eta musikaren bitartez. Astelehenera bitartean, baina, egunero edo gauero izanen da dantzarako parada. Eta dantza egin nahi ez duenarentzat: mus eta txiste txapelketak, trikitilariak eta abar. Haurrek ere izanen dute zer egin. Besteak beste, puzgarriak eta ginkana antolatu dituzte eurentzat.

◆ Auritz ◆

AURITZEN bost egun eskainiko dizkiote herritarrek San Joan patroiari. Bihar hasiko dira jaiak, eguerdian zeruan eztanda eginen duen altxaferoarekin. Lehen egunean bazkaria izanen da nagusi, hamabi eta erdietan txistor jatea egin ondoren, kalderete txapelketa eginen baitute arratsaldeko ordu bi eta erdietan herriko gazte eta helduek. Eta bazkaria jaisteko, ez dago dantza egitea baino hoberik. Dantzaldian eginen dute, beraz, topo herritarrek, lehenengo eguna giro onean igarotzeko aukerarik onena. Ekitaldirik garrantzitsuena, baina, gauerdian eginen dute. Beste hainbat tokitan bezala, San Joan sutea piztuko dute Auritzen ere, eta inguruan, Tribuli dantza eginen dute herritarrek, San Joan gaueko ohiturari jarraikiz. Dantza eta salto egin ondoren, gazta eta ogi jatea izanen da, eta ondoren, berriz, dantzaldia berriro ere. Patroiaren eguna ospatuko dute 24an eta egun berean, arratsaldean, herriko gaztetxoek dantzatuko dute Tribuli dantza. Haurrentzat izanen da beste ekitaldirik ere Aurizko jaietan, euren eguna ospatuko baitute hilaren 25ean, zezen suzko eta guzti. Horretaz gain,



txokolate jatea, mozorro dantza eta jokoak prestatu dituzte herriko txikienentzat. Hilaren 26an, azkenik, antzerkia izanen da Trokoloren eskutik arratsalde partean. Aurretik, baina, ordu biak aldera, herri bazkaria eginen dute, eta bazkaldu ondoren, auzoen artean herri kirolak. Arratsaldeko zazpietan amaituko dira Aurizko jaiak aurtengoz.

◆ Saldias ◆

BESTA egunak Saldiasen ere, gaurtik aurrera. Ezkila soinuak eta altxaferoaren eztandak jakinaraziko diete herritarrei Sanjoanak hemen direla berriro. Gaurtik astelehena bitartean, beraz, ez da faltako zer ikusi, zer entzun, zer jan eta zer egin. Ezta zer dantzatu ere. Gaur Jator taldeak jarriko du musika, eta Modestok gainontzeko egunetan.

Ekitaldi nagusia, ordea, San Joan eguneko meza nagusiarekin batera —24an eginen dute, eguerdian—, San Joan gaua izanen da. Saldiasen gaur bertan eginen dute salto suaren gainetik —erre gabe, gero!— herriko gazteek eta ez hain gazteek. Gaueko hamarretan piztuko dute sua eta aspaldiko ohiturari jarraikiz, *sarna fuera* oihukatuko dute guztiek salto egitean. Suak duen garbiketa zentzuarekin zerikusia dute halako adierazpideek. San Joan gaueko suak halako gaixotasunak sendatzeko balio zuela uste zuten antzina Nafarroako herri gehienetan.

Besta guztietan bezala, haurrentzako jokoak eta kirol ekitaldiak ere ez dira faltako Saldiasko jaietan. Haurren jokoei dagokienez, larunbat arratsaldean izanen dute hauetaz gozatzeko aukera txikiek. Kirolari dagokiola, berriz, aizkora eta pilota nagusi. Bihartik astelehenera bitartean, gainera, kalejira eginen dute herritarrek, goizeko bederatzietatik aurrera, herriko kaleetan barrena, trikitilari eta txistularien doinuaren laguntzarekin.

◆ Obanos ◆

HIRU EGUNEKO bestak besterik ez badira ere, irrika bizian zain dira Obanosko herritarrak biharko eguna noiz iritsi. Ez da gutxirako, norbere herriko jaiak, finean, horixe bera baitira, norbere herriko jaiak, gainontzeko guztien artean onenak eta preziatuenak. Obanosen ere, suaren inguruan antolatu dituzte euren jaiegunak bertako biztanleek. San Joanen omenez, beraz, txupinazoa botako dute zerura bihar, arratsaldeko zortzietan eta, jarraian, kalejira eginen dute herriko kaleetan barrena, txarangarekin eta buruhandien eta erraldoien laguntzaz. Nafarroako beste herri askotan bezala, bestalde, larunbatean San Joan sutea eginen dute, gaueko hamaiketatik aurrera. Bertan bilduko dira herriko biztanle guztiak, sua piztu eta gainetik salto egiteko asmoz.

Astelehenekoa izanen da azken eguna. Goizeko hamarretan dianen soinuak alaituko du giroa eta ondoren, eguerdian, Meza Nagusia eta San Joan eguneko prozesioa eginen dute herriko kaleetan barrena. Arratsalde eta gau partean, musika eta dantza izanen dira nagusi besten azken egunean eta aurtengo jai egunei agurra emateko, hain zuzen, *Pobre de mí* abestuko dute herritarrek, goizaldeko laurak aldera. Obanosen, beraz, beste urtebete zain geldituko dira bertako herritarrak, datorren urteko San Joan gauaren suaren beroa berriro noiz iritsi zain.

◆ Arbizu ◆

AURITZEN bost egunez baina Arbizun zazpi egunez ospatuko dituzte San Joan jaiak. Atseden hartzeko denborarik ere ez dute izanen arbizuarrek astebetean. Igandea izanen dute lehen eguna, San Joan bezperan. Goizean goiz hasiko da besta, zazpietan, hain zuzen. San Joanera igoera eginen dute eta bederatzi eta erdietan, berriz, jaitsiera. Gau partean dantzaldia izanen da. San Joan egunean, ohi denez, meza nagusia izanen dute arbizuarrek, herriko abesbatzaren laguntzaz. Arratsaldean, herriko kirolak ikusgai, eta ondoren, ilunabarrean dantzaldia. Asteartea kintoen eguna izanen da eta preso eta errefuxiatuena asteazkena. Osteguna, berriz, gazteen eguna. Kirola izanen da nagusi honetan. Arratsaldean, txirrindularitza eta pilota partiduak izanen dira ikusgai. Gau partean, aldiz, egunero bezala, dantzarako parada.

Haurren egunean beraientzako jokoak antolatu dituzte datorren ostiralerako. Artisauek ere izanen dute euren lana erakusteko parada, baita herritarrek Sebastopoleko Titiriteroekin gozatzeko aukera ere. Jubilatuen eguna ospatuko dute, azkenik, larunbatean. Meza eta hamaiketakoa izanen dute, baita trikitilari, dantzari eta bertsolarien saioa ikusi eta entzuteko modua ere. Gau partean, berriz, egunero bezala, dantzaldia eginen dute herriko plazan, aurtengo jai egunetako azkena, hain zuzen ere. Datorren urtera arte itxaron beharko dute arbizuarrek San Joan bestak berriro gozatu ahal izateko.

◆ Torralba del Rio ◆

TORRALBA DEL RION atzo hasi ziren San Joan bestak ospatzen. Herri afaria egin aurretik, ilunabarrean lehertarazi zuten zeruan jaiak iragarri zituen ohiko altxaferoa. Mozorro dantza izan zuten afaldu ondoren. Gaur, berriz, herriko tabernetan ibiliko dira herritarrak, guztiak elkarrekin pote batzuk hartzeko asmoz. Arratsaldean eta gauean, berriz, dantzaldia eginen dute.

Bestetalko egunik handiena, ordea, larunbatekoa izanen da Torralba del Rion. San Juango auzora eginen dute eguna argitzen hasi orduko. Diana ere izanen da gaiteroen eskutik. Eguerdian, berriz, meza nagusia, San Joan eta Bañanoko Birjinaren omenez. Torralba del Rioko bestetako ekitaldirik adierazgarrienetakoa da Juan Loboren harrapatzea eta exekuzioa; arratsaldeko seietan eginen dute, San Joanen Ballesteroen eskutik. Eta egunari behar den moduko amaiera emateko, dantzaldia izanen da, arratsaldean eta gauean, guztiek gorputza mugi dezaten.

Igandekoa izanen da aurtengo San Joan bestetako azken eguna Torralba del Rioko herritarrentzat. Larunbatean bezala, meza eginen dute igandean ere, eguerdian. Ondoren, haurrentzako jokoak izanen dira, baita arratsalde partean ere. Azken dantzaldia, berriz, Digital taldearen eskutik eginen dute ilunabar aldean. Azkenik, *Pobre de mí* abestuko dute bestak amaitu eta agurtzeko. Denen gustuko ekitaldirik, beraz, ez da faltako aurtengo San Joan jaietan Torralba del Rion.

Xanti Begiristain

Gose grebak

■ Euskal preso politikoen arazoa puri-purian darrai. Noiz arte? Hori ikusteko dago, baina ziur samarra da oraindik luze joko duela. Mundu guztiak daki euskal preso politikoen afera, Euskal Herria eta Frantzia-Espainiaren artean dagoen auzi politiko zaharraren ondorio funtsezko eta huts bat baino ez dela, nahiz eta jende askok oraindik ezkutatu nahi duen sustrai hori.

Alde batetik, gero eta garbiago dago sakabanaketaren kontua asmatu zutenek, legehauste handia egiteaz gain, aldi berean, porrot ikaragarria baizik ez dutela eskuratu bergizarteratzearen *joko* ponposoarekin azken urte neketsu hauetan.

Bestetik, azken bolada honetan, ia-ia egunero entzuten dugu komunikabideen bitartez, euskal preso politikoak hurbildu behar dituztela selektiboki Euskal Herrirarantz. Azken tela. Har ditzagun esate baterako Jose Antonio Ortega Lara jauna, eta euskal preso politikoen eta horien alde gose greban ari diren hainbeste pertsonaren kasua, eta ikusiko duguna zera da, Jose Antonio Ortega Lara jaunaren bahiketa eta bere alde egindako ekitaldi guztiak komunikabide handi guztiek ateratzen dituzte egunero, eta presoen sakabanaketa, tratu txarrak, gose grebalariak eta abar, komunikabide nagusiek ia-ia ez dituzte inoiz aipatzen, ez baldin bada negatiboki kritikatzeko behintzat. Jokamolde horri buruz ez dago gauza handirik esan beharrik, soil-soilik, komunikabide horiek egunero-egunero erakusten ari direla etika eta profesionaltasun eza izugarria, beste deus ere ez.

Bestaldetik, Iruñeko apezpikua den Fernando Sebastianek oso sentiberatasun eskasa adierazi du berriz ere euskal preso ohiekiko, eta

egunetan esan dutenez, baita baten bat, agian, euskal probintzietaraino ere, beti, denak bateratu gabe, jakina. Zer esango dugu horri buruz? Ba, neronek pentsatzen dut hori aurrerapauso txiki bat izan daitekeela. Kaltegarria ez dut uste izanen denik printzipioz, baina noski, presoak hurbiltzea soilik eta gainera hautaketa baten bidez, gutxiegi eta zuzengabea da. Hitz gutxitan esanda, nahikoa da adieraztea ekintza hori ez dela bidezkoa ez direlako betetzen ari haiek beraiek egindako euren legeak. Erdietsi duten eta eskuratzen ari diren gauza bakarra honako hau da, presoen pairamena areagotzea eta sendiak inolako merezimendurik gabe zigortzea; bi kasuetan ere, beti legez kanpo, horregatik asmakeria horien erantzule guztiei aurpegia gorritu ondoren puskaka erori beharko litzaieke ustelkeriaren ustelkeriaz.

Komunikabideen arlora igarotzen bagara ikusiko dugu betiko joerarekin jarraitzen dugela berean, erakutsi du ez duela gehiegizko tolerantziarik nahiz eta predikatzean gogotik eskatzen duen.

Espainia, Frantzia, Gasteiz eta Nafarroako gobernuek egunen batean aitortu eta praktikan jarri beharko dute euskal preso politikoak Euskal Herrian bateratzea lehendabiziko urrats erabakigarri eta ezinbestekoa dela, benetan lortu nahi baldin bada bidezko bake egoera iraunkor eta zuzena. Hasteko borondate ona eta eskuzabaltasuna beharko lituzkete gobernuek, politikariek eta zuzen-zuzenean inplikaturiko guztiek. Hortik aurrera, ondradutasuna eta legeak betetzea gutxienez.

Bitarteaz, baikortasunez, fronte guztietan lan egin eta borrokatzea, beste aterabide asko ez zaigu geratzen negoziazioa, hitzarmena eta egiazko bakea lortu arte, bestela egoera honek mugagabeki iraun lezake, eta neronek behinik behin benetako bake egoera ezagutu eta bizi nahi nuke. ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Emaztekien segida IV: Julie Adrienne Karrikaburu Roger, lehendabiziko euskal kantutegiaren egilea

■ Itsaso-Karrikaburu deitu indianoa Mexiko urrunetik bueltan hartzara Zuberoraturik, Ameriketan altxatu sosak Sohütako gaztelua erosteko kalitu zituen alegera. Roger andrearekin ezkondu eta bertan berean haien sei seme-alabak sortu zitzaizkien, guztietan gazteena gaurkoan guri dagokigun Julie Adrienne —edo dauden beste agirien arabera Josephine Hortense— genuelarik, 1827. urteko urriaren 14an jaioa zena alegia. Ahizpek Sacré Coeur izeneko ikastetxean zihardutenо anaiak ordea Juilly eskolan zebiltzan, baina gurasoek ez zeritzaten nahikoa ikaskuntza horri eta uda parterako geroantzean izen handia izanen zukeen begirale baten kontratatzea otu zitzaien, Agusti Xaho atharraztar handia. Hamasei urtetako neskutsa zela, 1843. urteko azaroaren 27an Orthezko Felix-Elisabeth-Pauk le Saulnier de la Villéhélio Dupoey 23 urtetako gazte izen-luzedunarekin ezkondu zen, gureganatu zaigun izena eman ziona bestalde. Paben Artigauko Baronesaren maila altuko bileretara joan ohi zen, non bertaratu guzien begiak begiratzen zituen kantetan hasi orotan, arras soprano ona baitzen. Menderdiaren hamarkadan kanta herrikoien biltzeari ekin zion, eta aitarenez gainera laborariengandik zuzenean ere jaso bazituen etxean pianoaren aitzinean eserita. Hartutako guziak ez ditugu ezagutzen, eta daukagun gauza bakarra Baionan 1869.ean argitara eman zuen kaier txipia dugu, dozena bat doinu eskaintzen diguna: *Txoriñoa kaiolan, Argia dela, Alargunsa, Irulia, Cantique, Adio ederra, Aphal aphal burua, Baratzeko geroflea, Maitenena, Agota, Zortziko* eta *Maskarada martxa*. Karrikabururen *Souvenirs des Pyrénées* hau euskal kantaren lehendabiziko antologia serioa dugu ezbairik gabe. Donostia aitak berrargitaratu zuen 1954.ean Herriaren Lagunen Elkarteak duen aldizkariaren orrietan. Atariko baten ostean, hamabi kantak datoz notazio musikala, iruzkinen bat zein frantxerara itzulpenaz horni. Guzietan zazpigarrena dateke interesgarriena, *Aphal aphal burua*, egun *Goizian goizik* bezala ezagunagoa, geroxeago Salaberri, Bordes, Jaurgain, Ithurriaga, Gerra, edota Azkuek berriz ere jasoa, eta Donostia edo Guridi batek erabilia izan dena. Istorio erabat dramatiko baten gainean eraikitako abesti honek, bestelako aldaerak baditu nonahi, eta Gonzalo Zulaika kaputxinotarrak, aita Donostiak naski, Mila i Fontanals edo Amades katalandarrek jasoa bazekarren aipatu berrargitalpenean:

«Siete años que lo tinch muerto / y tancat dins de una cambra / yo li mudo la camisa / todas las fiestas del año / li'n rentara su rostro / con rosas y vino blanco / veig qu'els ossos se dessossan / de aquellas carnes tan blancas».

Guziarekin ere Jean Jaurgainek euskal aldaeraren egiaztatzeko berriak idoro zituen artxibategietan, eta bere *Quelques legéndes poetiques du Pays de Soule* idazkian bazuen agertu abesti eder horren mataza osotzen duen hari historikoa: Altzai eta Mendikotako Jauna zen Pedro Irigarai Casenave, eta Aintzile eta Ipartze jauregietako nagusiaren alaba zen Gabriela Loitegi Zaro, 1633.eko uztailaren 8an ezkondu omen ziren, eztei egunean berean senar berriaren maitale ohi jeloskorrak igorritako lore sorta pozoindu bati usaindurik gizona hil zela. Salaberriarengandik jasoak ditugun adibideak lau ahapalditakoak dira; Villéhéliorenean ostera bi ahapaldi besterik ez duen beste bat dugu, ezezagunagoa den honako hau apika:

«Goizian goizik jelki ninduzun / Espusa nizan goizian / Bai eta ere setaz beztitu / Ekhia jelki zenian / Etxe-andre zabal ninduzun / Eguerdiren gainian / Bai eta gazte alharguntsa gazte / Ekhia sartu zenian.

Zazpi urthez atxiki nuyen / Senharra hillik khanberan / Egunaz kofre batian eta / Gauaz besuen artean / Baina dolutu izan zauzu / Eneki espusatzia / Aphal aphal aphal burua / Irunberriko maitena».

Gure andere kantu biltzailea Sohütako sorterrian bertan zendu zitzaigun 1898.eko otsailaren 10ean, 71 urte zituela. ■

Iruñeko Hiria xake torneo irekiko bederatzigarren jardunaldiko partida, 1996ko urtarrilaren 5ean jokatua. **Unai Garbisu**, 2.395 ELOkoa (Euskal Herria) — **Christian Maier**, 2.350 ELOkoa (Alemania).

1.e4,e6; 2.d4,d5; 3.d5,d5; 4.Ad3,c5; 5.c5,Ac5.

Beltzen hautua izan da peoia isolatua uztea. Nork aterako dio etekina horri?

6.Zc3,Ze7.

Beltzek 'd4' egitea baztertu dute. Zirikagarria zen, baina alfilari mozten zion bidea.

7.Zf3,bZ-c6; 8:h3,a6; 9.a3,Dd6; 10.0-0,0-0, 11.Dd2,f6; 12.Df4,Ae6; 13.b4,Df4; 14.Af4.

Damak aldatzea erdigunea kontrolatze aldera egin dute txuriek.

14....,Aa7; 15.fG-e1,Ef7; 16.aG-b1,aG-c8, 17.b5,Zd4; 18.Ze2,Ae5.

Alfil honek ez du leku onik aurkitzen. **Ikus koadroa**. Txuriak erabakitzeko tenorean daude.

19.a6,a6; 20.Gb6,a5; 21.Ae5,e5; 22.Zd4.

Jatea beharrezkoa izanik, partida txurien esku jarriko da.

22....,d4; 23.bG-e6,Zg6; 24.g3,Gc3; 25.h4,fG-c8; 26.h5,Zf8; 27.Ga6,Ga3; 28.Ga7 xa,Ef6.

'Eg1' jokaldiak ere ez zuen onik irtetea bermatzen.

29.f4,g6; 30.g4,g5; 31.Ga6 xa,Ef7; 32.g5,Gc7; 33.Gf6 xa,Eg8; 34.Ge8.

Txurien maniobrek beltzak suntsitu zituzten. Oso teknika onarekin.



Antzinako Merkatuak Tuteran

Beste herri batzuetan ere eginen dituzte Nafarroako Artisau Janarien Elkarteak antolatuta

Aurten ere Antzinako Merkatuak antolatu ditu Nafarroako Artisau Janarien Elkarteak. Iaz baino artisau gehiagok hartuko dute parte aurtengo ekitaldian. Antzinako Merkatuak, Ilunberri, Lizarra, Leitza, Otsagabia, Erriberri, Zangoza, San Adrian eta Ordizian eginen dituzte Tuteraz gain. Jesus Orduna antolatzailearen arabera, «aukera ona dira tokian tokiko eskaintza ezagutzeko».

Edurne Elizondo / **Iruñea**

Erdi Aroko giroa berreskuratu dute Artisau Janarien Elkartearen feriek.
OSKAR MONTERO

NAFARROAKO ARTISAU JANARIEN ELKARTEAK aurtengo udan eginen dituen Antzinako Merkatuak aurkeztu zituen joan den astean. Iaz sortu zen beste garaietako ohiturak berreskuratu nahi dituen ekimen hau, baina aurtengo ekitaldiak ekarri du berrikuntzarik.

Izan ere, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Nekazarien Kutxaren laguntza ezezik, Garalur eta Plazaola eta Pirinioetako partzuergoen bultzada ere jaso baitute aurten Antzinako Merkatuek. Feriak jasoko dituzten udalek ere zuzenean hartu dute parte merkatuak antolatzeko lanetan. Nafarroako Artisau Janarien Elkarteak, horrela, tokian tokiko jende, talde eta erakundeak barneratu nahi ditu bere proiektuan.

Antzinako Merkatuak asteburu honetan jarriko dira abian, Tuteran prestatuko baitituzte bihar eta etzi. Bi egunetan zehar, beraz, antzinako giroa izanen da nagusi Erriberako hiriburuko kaleetan barrena. Nafarroako Artisau Janarien Elkarteko kideek euren produktuak izanen dituzte bertan erakusgai eta salgai, baita bertako hainbat langilek ere. Beraz, eztia, pastak, patea edo likoreak bezalako produktuen artean izanen dira jatekoak ez direnak ere.

Besteak beste, liburu zaharrak eta antzinatekoak jarriko dituzte Tuterako artisauek erakusgai. Nafarroako artisauen artean, gainera, gure herrialdetik konpokoek ere izanen dute leku berezirik.

Erdi Aroko giroa nagusituko da Antzinako Merkatuen etorrerarekin Tuteran. Goizean, kalejira eginen dute merkatuan zehar eta bandoa irakurri eta gero zabalduko dira postuak. Egun osoan zehar, Katakrak taldeko kideek —hamabi— alaituko dute giroa. Malabareak, zirkuko ikuskizunak edo aztiaren espektakulua izanen dira ikusgai asteburuan Erriberako hiriburuan.

Musika ere ez da faltako aipatu Katakrak talde gipuzkoarraren eskutik, eta giroa Erdi Arokoa izanen denez, Teobaldo I.aren kantak abestuko dituzte egun osoan zehar, merkatuko hainbat txokotan. Gaua ailegatuta —gainontzeko herrietako merkatuetan gertatuko den bezala—, su festak emanen dio amaiera eguneko feriari, bai larunbatean bai igandean.

Tuteratik San Adrianera • Tuteran hasiko dira aurtengo Antzinako Merkatuak baina ez dira bakarrak izanen. Ondoren, uztailaren 20an eta 21ean, Ilunberrin antolatuko dituzte eta Lizarran, berriz, 27an eta 28an. Izanen da Nafarroan zehar Antzinako Merkatuak prestatuko dituzten beste herririk ere. Leitzara, adibidez, abuztuan iritsiko dira, 3an eta 4an, eta Otsagabiara 17an eta 18an. Abuztuan ere, 24an eta 25ean, Erriberrin antolatuko dituzte feriak, eta 31n eta irailaren 1ean Zangozan. San Andrianen irailaren 7an eta 8an eginen dituzte. Nafarroatik kanpo ere antolatuko dituzte aurten Antzinako Merkatuak, Ordizian (Gipuzkoa) hain zuzen. Abuztuaren 2an eta 3an izanen dira. Merkatuak, beraz, ahalik eta herri gehienetara eraman nahi izan dituzte antolatzaileek aurtengo ekitaldian ere.

> «Artisauek euren produktuak saltzeko lekuak ezezik, herri bakoitzak bere eskaintza erakusteko tokiak ere badira Antzinako Merkatuak»

Aurtengo Antzinako Merkatuetan, bestalde, iaz baino artisau gehiagok hartuko dute parte. Iazkoan osotara 30 bat artisauk hartu zuten parte eta aurten ia halako bi izanen dira. Horietako zortzi Nafarroako Artisau Janarien Elkarteko kideak izanen dira, hamar herri bakoitzekoak eta gainontzekoak beste herrialdeetakoak. Euren produktuak saldu ezezik, horietako batzuk nola egiten diren ere erakutsiko dute artisauok. Erosketak egiteko, halaber, Antzinako Merkatuen berezko den moneta erabiliko dute bisitariek, *sueldo, florin eta carlin*-ak, hain zuzen. Moneta horiekin erosiz gero, gainera, merkeago egin ahal izanen dituzte erosketak bisitariok. Merkatuko monetarekin batera, merkatuko poltsa ere jasoko dute euren erosketak bertan sartzeko.

Jesus Orduna Nafarroako Artisau Janarien Elkarteko kideak azaldu zuen legez, «artisauek euren produktuak erosi eta saltzeko lekua ezezik, herri bakoitzak duen eskaintza erakusteko tokia ere» izan nahi dute Antzinako Merkatuek. Hori dela eta, herri bakoitzeko ekimenak ferietan barneratzeko beharra azpimarratu zuen Ordunak. Halaber, Ordunak nabarmendu zuenez, «herri askotan, txikietan batez ere, eskaintzarik garrantzitsuena dira Antzinako Merkatuak». Iazko ekitaldiari buruz, berriz, «guztiz positibotzat» jo zuen, bai artisauen partehartzearen aldetik, bai tokian tokiko merkatuak ikustera hurbildu zen jendearen aldetik ere.

Oro har, 90.000 lagun inguruk bisitatu zituzten iazko merkatuak. Iaz izandako arrakasta ikusita, aurten ere horrenbeste edo gehiago lortzea espero dute antolatzaileek.

> Nafarroako bederatzi herritan eginen dituzte Antzinako Merkatuak, baita Gipuzkoako Ordizian ere

Erakutsi eta saldu

NAFARROAKO Artisau Janarien Elkartea 1994. urtean sortu zen gure herrialdean eta, gaur egun, 23 enpresa da bertako kide.

Euren helburua, artisau produktuak babestu eta bultzatzea da, oro har. Halaber, artisautzat hartzeko janariek eduki behar dituzten ezaugarriak betetzen diren zaintzea ere elkartearen zeregina da.

Ildo berean, Nafarroako Gobernuko Nekazaritzako Elikagaien Artisautzaren Batzordeko kide da Nafarroako Artisau Janarien Elkartea eta bertan proposatu du nekazaritzako elikagaien artisau terminoa arautzeko arautegia sortzea.

Elkarteko kide diren artisau askorentzat funtsezkoa da salmenta zuzena egitea eta horretarako aukera paregabea eskaintzen dute Antzinako Merkatuek. Erdi Aroko feria hauetaz gain, hala ere, bada beste aukerarik ere. Izan ere, urtebeteko ibilbidean, *Euroalimentaria, Gourmetaren aretoa, Alimentaria* eta Anugako Ferian hartu dute parte Nafarroako Artisau Janarien Elkarteko kideek.

Bestalde, Bartzelonan eta Iruñean ere, antolatu dituzte produktuak dastatzeko egunak, bakoitzak berea ezagutzera emateko asmoz.

Antzinako Merkatuei dagokienez, dena den, pozik dira parte hartu zuten artisau guztiak eta Jesus Ordunak aipatzen duenez, «asko saldu zuten». Hori dela eta, «oso positibotzat» jo dute iazko ekitaldia.

Horren adierazgarri da, besteak beste, iaz parte hartu zuten artisauek aurten ere Antzinako Merkatuetan izan nahi dutela. Merkatuetara eramandako produktuak saltzeaz gain, halaber, elkarren artean harremanak izateko balio izan zuten iazko feriek eta artisauek hori azpimarratu dute.

Baina ez dira artisauak errepikatzeko interesa izan duten bakarrak, iaz Antzinako Merkatuak antolatu zituzten udalek ere errepikatzeko gogoa izan baitute aurten. Iaz, zehazki, Tutera, Lekunberri, Erronkari, Urantzia, Erriberri, Zangoza eta Uharten egin ziren Erdi Aroko feriak, uztaila eta abendua bitartean guztiak.

Jesus Ordunaren irudikoz, «oso garrantzitsua da udalek duten interesa ikustea, konturatu baitira herria erakusteko eta bisitariak bertara erakartzeko aukera ezin hobea direla Antzinako Merkatuak». ✗

◆ **Mikel Garmendia** ◆ Aktorea

«Eskola ona da antzerkia»

Hezkuntza Politeknikorako Ikastetxeko Unibertsitate-Gelak Iruñean zinema eskola sortzeko aukera aztertzeko hitzaldi zikloa antolatu du aste honetan. Astelehenean izan zen lehenengoa eta gaur izango da azkena. Asteartean, aktore lanari buruz mintzatzeko, Amparo Muñoz eta Mikel Garmendia izan ziren Iruñean. Hitzaldia amaituta, Garmendiarekin solàstatzeko parada izan genuen.

Edurne Elizondo / Iruñea



Aktoreen lanari buruz hitzaldia eman zuen Mikel Garmendiak Iruñean.

EDURNE KOCH

IRUÑA PARK hoteleko Erroma aretoa ia beteta zegoen asteartean, arratsaldeko zortzietarako. Amparo Muñoz eta Mikel Garmendia ordurako iritsi ziren solaskideen mahaira. Egunero *Goenkale* Euskal Telebistako saioan Joxe Mari da Garmendia, eta bertan bildutakoen irribarrea piztu zuen une oro.

■ **Aktore izan nahi zenuela argi zenuen. Antzertin sartu zinenean, hitzaldian aipatu duzunez. Nola gogoratzen duzu hasiera?**

Pozik. Oso irakasle onak izan genituen eta gustura ibili ginen. 37 urterekin sartu nintzen ni Antzertin, baina behar ziren diziplina guztiak egiten nituen, gimnasia eta guzti. Saiatzen ginen eta pozik izan ginen. Niretzat betiko ahaztezinak izango dira orduko garaiak.

■ **37 urterekin aktore lanean hastea ez al zen zaila izan?**

Egia esan ez. Niri eta beste hamabost bat laguni berehala proposatu ziguten orduko 25.000 pezetako beka, ia denbora osoa antzerkiari eskaini ahal izateko. Beldurrez joan nintzen etxera nire andr- ari horren berri ematera. Uste en antzarak ferratzera bidali'k induela, baina ez zen hori gertat . Bazekien bizitza osoan horren atzetik ibili naizela eta aurrera segitzeko esan zidan. Eta orain arte.

■ **Euskal Herriko aktore askotxok bezala, beraz, antzerkian hasi zinen, nahiz eta orduz geroztik telebista eta zineman ere lan egin duzun. Antzerkiaren mundutik etortzeak eraginik al du zuen bestelako lanean?**

Antzerkia oso eskola ona da, adierazkortasuna lantzen laguntzen dizu. Noski, gero hori murriztu egin behar da telebistan edo zineman lan egiten baduzu. Baina ona da antzerkia egitea. Alderantziz, oso zaila da zineman hasi den aktore batentzat antzerkian lan egitea. Telebista, erdibideko medioa da, zinema eta antzerkiaren artean dagoena.

■ **Azken aldian, telebistako pantailan ikusi zaitugu gehien, *Goenkale* eta *Jaun eta jabe* telesailei esker. Telebistari eskertzeko asko al diozu?**

Bai, noski. Popularitateaz gain, antzerki obra batean edo pelikula batean lan egiteko erraztasunak ematen dizkizu. Dena da ekonomia hemen, badakite ni kartel batean azalduz gero jada sarrera batzuk salduta daudela. Orain, adibidez, *El florido pensil* antzezlana egiten ari gara eta oso arrakastatsua suertatzen ari da. Telebistak ezagun bilakatzen zaitu eta ateak zabaltzen dizkizu, argi dago.

■ **Baina, *Goenkale* saioan ez al dago nekatzeko arriskurik?**

Bai, noski, bai ikusleak nekatu eta baita ni ere. Baina oso ongi dator halako saio bat, diru segurua da alde batetik, eta bestetik jendeak gustura jarraitzen ditu bertako pertsonaien gora-beherak oraindik. Orain irailera arte oporrak hartuko ditugu eta gero berriz hasiko gara atal berriak grabatzen.

■ ***Goenkale*n, bestalde, aktore gazte askok egiten dute lan. Zer iruditzen zaizu belaunaldi berri honen lana?**

Bikaina. Jende berri asko dator atzetik eta gogoz ari dira lanean gainera. Asko ikasten dute. *Goenkale*-n bertan, aktore gazte batzuen garapena ikus daiteke, gero eta hobeto egiten dute lan. Dorleta Urretabizkaiaren progresioa, adibidez, Leireren rola egiten duena, izugarria izan da. Baita Anuska Lasarena ere. Jende ikasi eta prestatua da. Gu, askotan, alferragoak izaten gara.

■ **Juanma Bajo Ulloa zinemagile gasteiztarrak ere deitu dizu *Airbag* bere filme berrian parte hartzeko. Zer-nolako rola eginen duzu?**

Rosa Maria Sardaren senarra izango naiz eta Fernando Guillen Cuervoren aita. Rol txikia da baina presentzia handikoa. Zortzi egunetan grabatuko dut.

■ **Zer iruditzen zaizu Bajo Ulloarekin lan egiteko aukera izatea?**

Bajo Ulloa zuzendaria nitaz oroitzea benetan pozgarria da. Salto kualitatiboa da niretzat eta pozten nau. Jarraitzeko gogoa piztu dit berriro.

■ ***Maite* filmean ikusi zaitugu pantaila handian. Zer-nolako esperientzia izan zen zuretzat?**

Oso ona. Ameriketan ez nintzen sekula izan ordura arte, eta batbatean esatea Kubara joan behar duzula filme bat egitera, ba, pozgarria da. Lagunekin egin dut lan gainera. Horretaz gain, jende berria ere ezagutzeko aukera izan dut, primerako aktoreak guztiak. Dirurik ez dute edukiko baina aktore eskola izugarria dute Kuban. Ahaztezineko esperientzia izan da.

«Juanma Bajo Ulloa bezalako zuzendari bat nitaz oroitu izana pozgarria da. Salto kualitatiboa da niretzat»

●

soslaia

Mikel Garmendia Ordizian jaio zen duela 51 urte eta bi seme-alaba ditu, Mikel eta Edurne. Txikitan piztu zitzaion antzerkirako zaletasuna, baina 37 urte bete zituen arte ez zen lanean hasi. Antzertin sartu zen orduan, eta geroztik telbistan, zineman eta antzerkian egin du lan. Bera da Euskal Herriko aktorerik ezagunenetakoa.

*

'Goenkale' Euskal Telebistako saioaren ondorioz, Mikel deitu ordez Joxe Mari deitzen dute askok kalean ikusten dutenean. Telebistan ezezik, antzerkian ere lanean ari da gaur egun. El florido pensil lana taularatzen ari baita aktore ordiziarra.

*

Aktore berantiarra da bera, baina gazteengan konfiantza osoa du Mikel Garmendiak. «Ongi prestatuta daude». Bere lan egiteko erari dagokionez, kontzentrazioa bairo intuizioa nahiago du Ordiziakoak. Esperientzia, behintzat, ez zaio falta.

PANE LUCRANDO — ŻALDI ERROA